

# Enplegu duina nahi dugu planeta bizi batetan

**Klima aldaketa eragiten duten emisioak murrizteko eskatzen diegu enpresei**

Krisi klimatiko baten aurrean gaude, eta ez da enplegurik egongo planeta hil batean. Egoerari buelta ematea posible da, lantoki guztietan emisioak murriztu behar dira. Hemendik 2020ra klima aldaketaren aurkako akzio anbiziotsurik gabe, planetari atzera ezineko kalteak eragingo zaizkio. Ez badira neurri zorrotzak berehala hartzen, klima aldaketak pertsona guztiontzat mehatxua izango da, eta lurralde asko ez dira bertan bizitzeko moduan egongo.

Eragin suntsitzaileak dituzten muturreko fenomeno meteorologikoak enpleguak eta bizirauteko baliabideak suntsitzen ari dira. Dagoeneko sufritzen ari gara aurrekaririk gabeko bero boladak, glaziarren urtzaldi azkarra, hotz polarrak gure latitudeetan, basoetako suteak eta uholdeak gero eta sarriago, ozeano eta ibai toxikoak, eta biodibertsitatean galera handiak. Mundu mailako itsas maila 20 zentimetro igo da azken mendean. 83 milioi pertsonak migratu behar izan dute klima arrazoiengatik, gerren eta egoera ekonomikoaren ondorioz migratzen dutenak baino gehiago OCDEren arabera. Kostu sozialak eta ekonomikoak agerikoak dira.

Planetaren beroketa 1,5°Cko gehienezko beroketan egonkortu ahal izateko 11 urte besterik ez zaizkigu geratzen. Hurrengo 10 urteetan karbono dioxido emisioak %50 murriztu

behar ditu munduak. 2020an gobernuak emisio murrizketetan konpromiso berriztuak hartu beharko dituzte klimaren inguruko Parisko Akordioa betetzeko. 2019 beraz urte kritikoa izango da ekintzak eskatzeko, baina gobernuak ez dituzte beraien ardurak behar den ambizioarekin hartzen. Langileak eta beraien komunitateak babestuko dituen trantsizio justurako neurriak hartzen dituzten garapen planak zehaztu behar dituzte gobernu guztiek.

Enpresek ere beraien jarduerak klima aldaketara egokitzeko planak egin behar dituzte, plan hauen oinarri berotegi efektuko gasen murrizketa eta trantsizio justurako neurriak izanik.

Guzti honengatik diogu langileok klima aldaketari aurre egiteko akzioaren lehen lerroan gaudela. Enpresariak gure lanpostuak klima aldaketara egokitzea exijitzen dugu. Horregatik ekainaren 26an, lantokietan klima aldaketaren aurkako nazioarteko ekintza eguna izanik, enpresariei galdegin behar diegu enpresak eta gure lanpostuak etorkizunean klima aldaketara nola egokitzea aurreikusten duten.

**#CPOW**  
**#Ekainak26**  
**#26Junio**

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

# KLIMA ALDAKETAREN AURKAKO EKINTZA EGUNA LANTOKIETAN

## ESKUTITZA (ekainaren 26an enpresariei emateko)

..... Jaun-andrea,

Krisi klimatiko bat dugu. Mundua klima aldaketaren ondorio larriak pairatzen ari da, muturreko bero boladak edo itsas mailaren igoera besteak beste. IPCCren klima aldaketarako espezialistek baieztatu dute mehatxu handiagorik ez izateko beroketa globala 1,5°C azpitik egonkortzeko neurriak berehala hartu behar direla.

Beharrezkoa da enpresek ere anbizio maila handiagoa izatea. Ekonomiarekin gertatzen den bezala, epe luzearako plan enpresarial arduratsu batek, erabakiak gaur hartzea baina etorkizunean pentsatzen hartzea exijitzen du. Ez da zentzuzko kontua soilik, gure ardura ere bada ondorengo belaunaldiek klima aldaketaren zorrik ez jasotzea.

Langileek eskubidea dute jakiteko enpresak nola aurreikusten duen emisioak murriztea eta enpresarentzat etorkizun jasangarri bat izatea.

Zurekin biltzea gustatuko litzaiguke ekainaren 26rako Sindikatuen Nazioarteko Konfederazioak deitu duen Lantokietan Klimaren Aldeko nazioarteko ekintza egun honetan. Hitz egin dezagun gure lanpostuak klima aldaketara nola egokitu daitezken.

Bai langileek, bai enpresak, segurtasuna nahi dugu, eta klima aldaketak zalantzarik betetako etorkizuna dakar guztiontzat.

Sindikatuaren Nazioarteko Konfederazioak kanpaina egiten du lanpostuak ekologikoagoak eta gizarte ikuspuntutik onargarriak izan daitezen. Trantsizio Justuak langileen eta beraien komunitateen etorkizuna eta bizirauteko medioak bermatzen ditu karbono gutxiko ekonomia baterantz egin behar den trantsizioan. Eta hau lortzeko ezinbestekoa da plan bat izatea.

Hauek dira egin nahi dizkizugun galderak:

### - Gure enpresak isurtzen dituen berotegi efektuko gasak neurtzen al ditu?

- Horrela bada, garatu al daiteke emisio hauek gutxitzeko planik?
- Horrela ez bada, isurketa hauek neurtzeko prozedurarik martxan jarri al daiteke?

### - Iritsiko al gara 2050erako zero emisio izatera? Edo 2030erako emisioak %50 murriztera?

### - Zer egingo dugu helburu hauek lortzeko?

Besterik gabe,

..... (Atal sindikala)

**#CPOW**  
**#Ekainak26**  
**#26Junio**

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA